

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloetan 2019. urtean dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onestea

Kultura Saileko zinegotzi ordezkariaren 2020ko ekainaren 16ko 2020/106 Ebazpenaren bidez, onetsi egin dira kultura, kirol eta gizarte arloko elkarte eta taldeei 2019ko ekitaldian egindako jardueretarako dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 9. artikuluan aurreikusitakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek.

2019. urtean kultura, kirol eta gizarte arloko dirulaguntzak emateko oinarriak

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. OINARRIEN XEDEA

Oinarri hauen xedea da Okondoko Udalak 2020. urtean kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloko jarduerak, udal programak osatzen dituztenak, egiteko dirulaguntzak emateko erabiliko duen prozedura arautzea. Dirulaguntza horien bitartez, Okondoko herritarrentzat interes publiko edo gizarte intereseko jarduerak bultzatuko dira 2019an eta horri esker Udalak bere jardun eremuetan dauzkan helburuak lortu ahal izango ditu.

Dirulaguntza hauei honako hauek aplikatuko zaizkie: Okondoko Udalak onetsi duen udal dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokorra; Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta aplikatu daitezkeen legeria osagarria.

2. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA LERROAK, DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTZEPTUAK ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Urtean zehar egiten diren jarduera eta proiektuetarako dirulaguntza; dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, oinarri hauen arabera dirulaguntza jaso dezaketean eta 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra arte sortu diren gastuen ehuneko laurogei izango da.

Dirulaguntza lerro hau bi arlotan banatu daitezke: Gizarte-kultura, batetik, eta kirola, bestetik; dirulaguntzen kontzeptuak geroago zehaztuko dira.

3. ARTIKULUA. AURREKONTU ZUZKIDURA

Gastua 481002334 Okondoko elkarteak partidari egotziko zaio, 4.000 euroko aurrekontu zuzkidurarekin.

4. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK ETA JARDUERAK

4.1. Dirulaguntza hau Okondoko herritar ororentzako diren eta ohiko bitartekoetan (udalaren aldizkaria, web orria eta kartelak) publizitatea egingo zaien jardueretarako bakarrik izango da.

Dirulaguntza jasotzeko, ezinbesteko betekizuna izango da eskatutako informazio guztia eranstea, bai eta diruz lagundutako jarduerak iragartzeko kartelen ale bana ere, zeinek irizpide hauek bete beharko baitituzte:

— Udalaren logotipoa.

— Euskara txertatzeko bete beharreko hizkuntza irizpideak (nahitaez bete beharreko irizpideak doaz honekin batera).

— Genero ikuspegia txertatzeko bete beharreko berdintasun irizpideak (hizkera eta irudi inklusiboak).

4.2.1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira ondoko kontzeptu hauengatik sortzen direnak:

Autobusak kontratatzea gizarte, kultura eta kirol ekitaldietan parte hartzeko.

Haurrentzako animazio jarduerak.

•Txokolatadak, lunchak, merendolak, baina betiere diruz lagun daitezkeen jarduera publiko bati lotuta, eta gehienez 150,00 euroko zenbatekoarekin.

•Jarduerak jai tradizionaletan (Santa Ageda, San Prudentzio, Olentzero, Erregeen kabalgata eta beste batzuk).

Kirol txapelketak, erakustaldiak eta mendira irteerak antolatzea, barnean hartuta jarduera gauzatzeko beharrezko diren antolaketa gastuak eta ekitaldi horietan emango diren sariak (ezingo dira dirutan eman) eta trofeoak.

Gizarte eta kultura jarduerak (emanaldiak, antzezpenak, hitzaldiak, arte eta kultura lehiaketak eta elkartearen jarduerari loturiko prestakuntza ikastaroak eta lantegiak).

4.3. DIRULAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN GASTUAK

Ez dira diruz lagunduko honako jarduera hauek:

Otorduak:

Jarduera piroteknikoak.

Herritarrei irekitako jarduera publiko baten inguruan antolatzen ez diren lunchak edo askariak ez dira diruz lagunduko.

Gabonetako ekitaldietan ez da oparirik diruz lagunduko, edozein motatakoak direla ere.

Dietak.

Sariak eskudirutan.

5. ARTIKULUA. ESKATZAILEAK

5.1. Dirulaguntza eskatu ahal izango dute: irabazteko xederik gabeko edozein elkartek, 2019. urtean kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloetan programa edo jardueraren bat sustatu edo gauzatu badu, Okondoko udalerrri osoarentzat onura publikoa edo gizarte interesa duten jarduerak sustatze aldera, eta honako baldintza hauek betetzen baditu:

Egoitza soziala edo egoitza Okondon izatea.

Pertsona juridikoa bada, haren estatutuek beren-beregi jasotzea haren xedea interes orokorreak eta herriaren zerbitzurakoa dela edo irabazteko xederik gabe sortu dela.

Udaletxe honetako erregistroan agiri bidez frogatu ahal izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Elkartearen ekintza esparrua Okondon garatzea.

Dirulaguntzaren onuradun izateko debekuetan ez egotea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.2. Debekuak: Ezin izango dute parte hartu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten elkarte edo erakundeek.

6. ARTIKULUA. ESKAERAK

6.1. Eskaerak aurkezteko epea: Oinarri hauek onartzeko dekretuan zehaztuko da data (gutxi gorabehera 2 hilabete).

6.2. Argibideak eta eskaeren izapideak: deialdiari buruzko argibide guztiak eskura egongo dira Udalaren webgunean (www.okondokoudala.eus).

Eskabideak Okondoko udaletxean jaso eta aurkeztu ahal izango dira.

6.3. Aurkeztu beharreko agiriak:

6.3.2. Elkaratek aurkezten dituzten eskaerarako:

Eskaera bere izenean edo elkaratearen izenean sinatzen duenaren NANaren fotokopia (dagoeneko udaletxean aurkeztu ez bada).

Elkaratearen IFZren fotokopia, dagoeneko udaletxean aurkeztu ez bada.

Elkartea Okondoko Elkarteen Udal Erregistroan alta emanda ez badago, izena eman beharko du dirulaguntza eskatzen duenean, eta horretarako agiri hauek aurkeztu behar ditu: erakundearen estatutuen fotokopia, legez eratuta eta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan erregistraturik dagoela egiaztatzeke agiria, eta IFZren egiaztatzea.

6.4. Eskaera:

Eskabidea behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko da, ereduaren arabera, Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzian datuak egiaztatzeke baimenarekin batera (2019an zehar egindako jarduerak edo programak adina).

Era berean, eskabide guztietan kontuan hartu beharko da beste administrazio edo erakunde batzuen dirulaguntzen eta beste iturri batzuen bidez lortutako finantzaketa osoa. Babesleztak eta parte-hartzaileen ekarpenek ezingo dute aurkeztutako programaren kostua gainditu.

Lortutako diru-sarrerak horiek guztiak ere diru-sarrera gisa jaso beharko dira dirulaguntza justifikatzeko kontuan.

Udalak egokitzen dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei, aurkeztutako eskabidea hobeto baloratzeko.

Eskabidea behar bezala eginda ez badago edo aipatutako datu nahiz agirietako baten bat falta bada, pertsona edo erakunde eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, 10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan, eta ohartaraziko zaio, hori egin ezean, besterik gabe eskabidea artxibatu egingo dela.

7. ARTIKULUA. ERAKUNDE ONURADUNAK DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA ZABALTZEA

Dirulaguntza ematen zaien erakunde guztiek udal finantzaketa horren berri zabaltzeko beharko dute, udalaren logotipoa jarri egiten dituzten material inprimatuetan (kartelak, liburuxkak, informazio orriak...), hedabide elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan edo idatzizko komunikabideetako iragarkietan. Horretarako, Okondoko Udalak udal logotipoa emango die pertsona edo erakunde interesdunei.

Gainera, Okondoko Udalaren euskararen erabilerarako plan estrategikoari jarraituz erabiliko dira bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitaterako egiten diren kartel, testu eta agirietan.

Nahitaez sartu beharko dira, halaber, genero ikuspegia txertatzeko bete beharreko berdintasun irizpideak (hizkera eta irudi inklusiboak).

Okondoko Udalaren dirulaguntzaz egiten diren jarduerak guztien berri zabaltzeko da jarduerak hasi baino lehen, interesa duten guztiek parte hartu ahal izan dezaten. Halaber, jarduerak egin baino gutxienez zazpi egun lehenago udalari jakinarazi beharko zaio, egokitzen dituen hedabideetatik jardueraren berri eman dadin.

8. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Hauexek dira erakunde onuradunaren betebeharrak:

Dirulaguntza ematea arrazoitzen duen helburua betetzea, proiektua egitea, jarduera gauzatzea edo jarrera izatea.

Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak betetzen direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela edo helburua bete dela ere.

Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.

Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana. Dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide horien berri jakin bezain laster jakinarazi beharko zaio, eta, nahitaez, jasotako funtsak nola erabili diren justifikatu baino lehen.

Dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik, Udalarekiko zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean dagoela frogatzea.

Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak, agiri elektronikoak barne, egiaztatuak eta kontrolatuak izan baitaitezke.

Okondoko Udalaren euskararen erabilerarako plan estrategikoan ezarrita dagoena betetzea, programa edo jarduera iragartzean nahiz gauzatzean.

Berdintasun irizpideak jarraitzea bere jardueren komunikazioan eta kartelgintzan, hizkera eta irudi ez-sexistak erabiliz. Hori dela-eta, Udalak berdintasunaren arloko prestakuntza eta aholkularitza tekniko jarraitua antolatuko du elkarreentzat.

Udalak berdintasunaren arloan antolatzen dituen prestakuntza jardunaldietara joatea, elkarreel laguntza indibidualizatua eta adostua emateko prozesuaren barruan, honako helburu hauekin:

Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitea.

Estatutuak aldatzea, genero ikuspegia barne har dezaten.

Zuzendaritza batzordeak aldatzea, paritarioak izan daitezen.

Indarkeria matxista eta mikromatxismoak prebenitzea elkarreentzako jardueren barruan.

9. ARTIKULUA. BALIOESPEN IRIZPIDEAK

Dirulaguntzak emateko kontuan hartuko dira irizpide hauek:

Proiektuaren hedadura (jarduera egiteak zenbat pertsonari ekarriko dion onura).

Entitate eskatzaileak bere jarduera eremuan erakutsi duen jarraitzeko gaitasuna eta egonkortasuna.

Jarduerak euskaraz egitea.

Eskatzaileak beste finantzabide batzuetara jotzeko zailtasuna izatea; eskatzaileak dituen baliabide ekonomikoak, eskatutako zenbatekoaren aldean; eta baliabide eta finantzabideen bila egiten duen ahalegina.

Programaren eta proiektatutako jardueren bideragarritasuna.

Aurkeztutako balantze ekonomikoa.

Berdintasun eta aniztasun irizpideak, honako kasu hauetan:

Diruz lagundutako proiektuak edo jarduerak genero ikuspegia jasotzen badu diagnostikoan, helburuetan, jardueraren garapenean edo justifikazio memorian.

Jardueran, emakumeen egoera, behar, interes, jomuga eta problematika espezifikoak kontuan hartzen baditu.

Jarduerak genero estereotipoak eta rolak aldatzea eragiten badu.

Jarduerak gizonen zaintza lanak edo gurasoen eta seme-alaben arteko jarduerak sustatzen baditu.

Jarduerak haurren baterako zaintza sistemak aurreikusten baditu, gurasoek zaintza horiek egitea erraztuko dutenak, eta bizitza pertsonala eta familiakoa jarduera garatzearekin bateragarri egitea ahalbidetuko duten ordutegi eta lekuetan garatzen bada.

Onuradunak gutxienez ehuneko 40 emakumeak direnean.

10. ARTIKULUA. EBAZTEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA

Dirulaguntza emateko eskumena alkate-lehendakariak edo eskuordetutako zinegotziak izango du, Kulturako teknikariak aldeaz aurretik txostena eginda, eta, ondoren, dagokion batzordeari kontua emanda.

11. ARTIKULUA. EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

Eskaerak ebazteko eta pertsona edo erakunde eskatzaileei ebazpena jakinarazteko epea lau hilabetekoa da, deialdi hau argitaratzen denetik hasita. Dirulaguntza emateko ebazpenak nahiz dirulaguntza ukatzekoak, denak jakinaraziko dira.

12. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

12.1. Dirulaguntzen justifikazioa.

Dirulaguntza lerroei dagozkien faktura guztiak eta dagozkien eranskinak aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta eta sinatuta.

Dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, eta ez Udalak emandako diru kopurua bakarrik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak xedatzen duen moduan.

12.2. Justifikatzeko sistema:

Justifikazioan honako hauek bildu beharko dira:

5. eranskina aurkeztu beharko dute pertsona edo elkarte eskatzaile guztiek.

7. eranskina aurkeztu beharko dute elkarte eskatzaileek. Egindako jarduera bakoitzerako bat aurkeztu beharko da, behar bezala beteta.

Egindako gastuen jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak.

Ordainagiriak (fakturaren zenbatekoa eskudirutan ordaintzen bada, nahikoa izango da kasuan kasuko merkataritza establezimenduak edo enpresak kobratu edo ordaindu izanaren zigilu bat jartzea eta, horren gainean, eskuz egindako sinadura; edo, bestela, enpresak sinatutako idazkia, identifikatzen duen fakturaren ordainketa eskudirutan jaso duela adierazten duena). Baldin ordainketa banku transferentzia bidez egiten bada, egiaztatzea erantsi beharko da (nahitaez banku transferentzia bidez egin beharrekoak dira 2.500,00 eurotik gorako ordainketak).

Jardueraren berri emateko erabilitako kartelaren, liburuxkaren... ale bat.

Aurkeztutako fakturen guztirako zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100 baino txikiagoa bada, edo diruz lagundutako proiektu zein jarduera burutzen ez bada, onuradunak horren berri emango dio Udalari, gainerako dirua Udal Diruzaintzan sartzeko edo, bestela, emandako dirulaguntza murrizteko.

12.3. Batere justifikaziorik edo justifikazio nahikorik ez ematea.

Batere justifikaziorik edo justifikazio nahikorik ematen ez bada, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira berandutze interesekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako eran.

13. ARTIKULUA. ORDAINKETA

Ezarritako baldintzak eta aurreikusitako helburuak bete direla justifikatu ondoren ordainduko da emandako dirulaguntza.

14. ARTIKULUA. BALDINTZAK EZ BETETZEA, ETA DIRULAGUNTZA ITZULARAZTEKO PROZEDURA

Onuradunak dirulaguntza jasotzeko oinarri hauetan edo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da dirulaguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

15. ARTIKULUA. GARAPENA ETA INTERPRETAZIOA

Oinarri hauen interpretazioari buruzko duda guztiak alkateak edo zinegotzi ordezkariak argituko ditu.

Oinarri hauetan jasotzen ez den orotarako Okondoko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan eta gainerako araudi aplikagarrian zehaztutakoari jarraituko zaio.



**OKONDOKO 2020KO DIRULAGUNTZAK
GIZARTE-, KULTURA- ETA KIROL-ELKARTEENTZAT
2019KO JARDUERAK**

ESPEDIENTE-ZK. *

ERAKUNDEAREN DATUAK

ERAKUNDE ESKATZAILEA		
HELBIDEA		
IFK	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK		NAN
HELBIDEA		
HELBIDE ELEKTRONIKOA	1. TELEFONOA:	2. TELEFONOA:

JUSFITIFIKAZIOAREKIN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Behar bezala betetako eranskinak
- Jarduera-fitxak. Jarduera-fitxa bat bete behar da eskatuko den eta diruz lagunduko den jarduera bakoitzeko.
- Diruz lagundu daitezken kontzeptuengatik sortutako fakturak eta ordainagiriak
- Okondoren Udalaren babesa argi ikusten den kartel eta posterrak.

Aurretik aurkeztu ezean, atxiki behar den dokumentazioa:

- NANaren fotokopia
- IFZaren eta elkartearen estatutuen fotokopia

ELKARTEAREN IBILBIDEA

ELKARTEAREN SORRERA DATA	ELKARTEAK UDALERRIAN LANEAN DARAMATZAN URTEAK

BAZKIDEAK

BAZKIDE- KOPURUA	EMAKUME- KOPURUA	GIZON- KOPURUA
OKONDON ERROLDATUTAKO PERTSONA- KOPURUA		OKONDON ERROLDATU GABEKO PERTSONA- KOPURUA

**GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINZA NAGUSIAREN ETA FORU OGASUNAREN AURREAN
DATUAK EGIAZTATZEKO BAIMENA**

.....

jaun/andreak, NAN-zenbakiarekin,

..... elkarteko presidente-

idazkari gisa (IFZ:

BAIMEN HAU EMATEN DUT:
OKONDOKO UDALARI baimena ematen diot Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzaren

Diruzaintza Nagusiari egiaztatzeko

.....elkarateak erakunde horiekiko

zorrak ordainduta dituela.

.....-n, 2020ko -ren(e)(a)n.

OKONDOKO UDALARI ESKATUTAKO PROIEKTUAREN AURREKONTUA:

KONZEPТУA	GASTUA SORTUTAKOA	DIRULAGUNTZA ESKATUTAKOA	ESTELAKO DIRULAGUNTZA ASOTAKO DIRU-SARRERA
AUTOBUSAREN KONTRATAZIOA			
HAURREN ANIMAZIO-JARDUERAK			
TXOKOLATADAK, LUNCH, ASKARI HANDIAK			
JAI TRADIZIONALETAKO JARDUERAK			
KIROL-TXAPELKETAK ANTOLATZEA			
KIROL-ERAKUSKETAK ANTOLATZEA			
JARDUERA SOZIOKULTURALAK			
GUZTIRA			

Eskaera honetako datu guztien egiazkotasuna adierazten dut. Halaber, deialdiaren oinarriak erabat onartzen ditut eta baimena ematen diot

Okondoko Udalarari eskaerako edozein datu egiaztatzeko, erregistroetako edo dagokion elkartearen dokumentazioaren kontsultaren bidez.

Okondo,.....

SINADURA



**OKONDOKO 2020KO DIRULAGUNTZAK
GIZARTE-, KULTURA- ETA KIROL-ELKARTEENTZAT
2019KO JARDUERAK**

JARDUERA FITXA

Jardueraren izena				
Egikaritze-data				
Nori zegoen zuzenduta	Hautzaroa <input type="checkbox"/>	Gazteria <input type="checkbox"/>	Helduak <input type="checkbox"/>	Herritar guztiak <input type="checkbox"/>
Jardueraren deskripzioa eta balorazioa:				
Lortutako helburuak:				
Jarduera publizitzeko erabilitako hizkuntzak	Euskara <input type="checkbox"/>	Gaztelania <input type="checkbox"/>	Biak <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Jarduera erabilitako hizkuntzak	Euskara <input type="checkbox"/>	Gaztelania <input type="checkbox"/>	Biak <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Partaide-kopurua	Emakumeak:		Gizonak:	
Jardueraren gastu totala:				
Lortutako diru-sarrerak	Bestelako dirulaguntzak	patrozinioak	kuotak	bestelakoak

GASTUEN BANAKAPENA:

Kontzeptua	Hornitzailea	faktura-zk.	faktura-data	Faktura guztira
GUZTIRA				

Fitxa bat bete beharko da jarduerako, ahalik eta informazio gehienarekin.
Lortutako diru-sarreraren kontzeptuan zenbatekoak eta iturriak zehaztu beharko dira.



**OKONDOKO 2020ko DIRULAGUNTZAK
GIZARTE-, KULTURA- ETA KIROL-ELKARTEENTZAT
2019KO JARDUERAK**

EUSKARA-IRIZPIDEAK / CRITERIOS EUSKARA

Udalak diruz lagunduta elkarteek egingo dituzten aktibitateak iragartzeko karteletan hizkuntzek izango duten agerpena estandarizatzeko asmoz, hizkuntza ofizialen normalizazioa lortzeko erabiliko diren hainbat irizpideren aplikazioa proposatzen da.

Euskararen agerpena bermatuko da egindako kartel, errotulazio, iragarki, inprimaki eta antzeko elementu guztietan.

Irakurketaren ibilbideari jarraikiz, euskara gaztelania baino lehentsuago agertuko da. Hau da, testuak goitik beherako taxutzea duenean, euskarazko testua goiko aldean egongo da eta, horizontala denean, gaztelaniazkoaren ezkerrealdean.

Testua zutabetan antolatutik dagoenean, euskarazko testua ezkerrekoan agertuko da.

Erabiltzen diren grafien tamainan ezberdintasunik balego, euskarazko testua tamaina handieneko hizkietan egongo da.

Orrialde berean agertuko dira bi hizkuntzetako bertsoiak, hots, ez da orrialde batean gaztelaniazkoa jarriko, eta beste batean edo atzeko aldean euskarazkoa, testu biak orri berean baizik.

A fin de estandarizar la presencia de las lenguas en los carteles que publiciten las diferentes actividades subvencionadas por el Ayuntamiento y realizadas por las asociaciones se propone la aplicación de diversos criterios que serán utilizados para conseguir la normalización de las lenguas oficiales.

Se garantizará la presencia del euskara en la totalidad de carteles, rotulación, anuncios, impresos, etc.

Siguiendo el orden de lectura, el euskara aparecerá en una ubicación anterior al castellano. Es decir, cuando la disposición sea de verticalidad, el euskara se encontrará encima del castellano y, de ser horizontal, el euskara a la izquierda del castellano.

Cuando sea un texto planteado en columnas, la de la izquierda será ocupada por el texto en euskara.

De existir una variación en los tamaños de las grafías usadas la de mayor tamaño será la de la versión en euskera.

Aparecerán en la misma hoja las versiones en ambas lenguas, es decir, no se presentará una hoja exclusivamente redactada en castellano y otra, diferente o en el dorso, en euskara.

BERDINTASUN-IRIZPIDEAK / CRITERIOS IGUALDAD

**ELKARTEETAN GENERO IKUSPEGIA
TXERTATZEKO IRIZPIDEAK**

Hizkera inklusiboa izango da, emakumeak eta gizonak bistaritzen dituena.

Irudietan, pertsonak agertzekotan, emakumeak eta gizonak izango dira, eta estereotipoei lotutako irudirik ez da erabiliko.

Elkarteen batzarretan, emakumeen parte hartzea

bultzatuko da, gizonezko gehiago egonez gero.

Epaimahaiak aukeratzean, parekideak izatea kontuan

izango dugu, hau da, emakumeak eta gizonak egotea.

Ekintzak antolatzeko orduan, kontuan izango dira emakumeek egindako ekarpenak bistaritzea eta beraien parte hartzea bultzatuko da.

**CRITERIOS PARA INCORPORAR
PERSPECTIVA DE GÉNERO EN LAS**

El lenguaje será inclusivo, para que visualicemos tanto a mujeres como hombres.

En las imágenes, si aparecen personas, que sean mujeres y

hombres, descartando imágenes estereotipadas.

En las juntas de las asociaciones, fomentaremos la participación de las mujeres en el caso de que haya más hombres.

A la hora de elegir jurado, tendremos en cuenta que sea

paritario, esto es, que haya mujeres y hombres.

Cuando se organicen actividades, se tendrá en cuenta visibilizar las aportaciones realizadas por las mujeres así como fomentar su participación.